

...

Coelhok azaltzen du gaur egun ez dutela iraganeko kultur politikak balio eta iragabeko imaginarioan oinarritutako kultur politikak egiten jarraitzeak ambizio mediokreak eta porrotak dakartzala. Gaur egungo ideia zentralak garapena eta garapen iraunkorra dira. Gaur egun, kultura osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta ongizate soziala bezalako ongi publiko gisa agertzen zaigu. Bere ustez kultura era sistemikoan ulertu eta tratatu behar da. Beharrezkoa da kultur politikarako sistema bat definitzea, hau gabe, kultur garapenaren ideiak ideia huts izaten jarraituko du, diskurtso eta seminarioak elikatzeke egokia baino konkretuaren gainean eragiteko erabat ezgai. Sistema hau gabe ezin izango da garapen ekonomikorako beharrezkoa den giza garapena lortzea. Bere definizioak kultur politika baterako auzi garrantzitsuenak seinalatzen dituzte:

1. Eskubide kulturalak, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazioan oinarrituak (UNESCO). Deklarazio hau nazismo osteko testuinguruan sortu zen, norbanakoa batez ere estatuarengandik babesteko. Hau da, giza eskubideak indibiduoaren botere soziala (empowerment) areagotzeko izan ziren diseinatuak, baino haien aplikazioa egokia izan dadin norbanakoaren ulerkerak ahalik eta zabalena izan behar du. Kultur eskubideak ez dira ulertu behar eskubide abstraktu, inmaterial eta espiritual gisa, baizik eta auzi material eta beraz neurgarrietan itzul daitezke. Izan ere, kultur eskubideak eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen inguruko dokumentu baten parte ziren. Kritikatzen du Coelhok zerrendako azkena izatea kultura, esanez hau XIXeko ideia zahar baten arrastoa dela, zeinaren arabera kultura ekonomiari determinatutako egitura baten gai egitura da. Egia da, ordea, dokumentu honek ekonomia eta kulturaren arteko lotura ezartzen duela, kultura bere hortan garapen ekonomikorako ezinbesteko baldintza gisa ikustea ahalbidetuz. Ez dago garapen ekonomikorik garapen kulturalik gabe. Eskubide kulturalen lausotasun eta urritasunak esan nahi du ia herrialde guztiak onartu dituztela. Laburbilduz, hauek dira: kultur prozesuan parte hartzeko eskubidea, aurrerapen zientifiko eta teknologikoen onura izateko eskubidea, egile eskubidea izateko eskubidea...
2. Aniztasun kulturala: kontzeptu bezala "beste" eta "ezberdina" den horren inguruko eztabaiden testuinguruan agertu zen. Bai akademian bai mugimendu sozialetan emakumeen, minoria sexualen, talde etnikoen... arazo espezifikoak jorratzen hasi ziren. Aniztasun kulturala UNESCOren 2005ko deklarazio baten objektu izan zen.  
Zerk impulsatu zuen deklarazio hau? Globalizazioak. Izan ere, ebidentea zen ongi kulturalak ekonomiaren protagonista zentral bilakatu zirela, behintzat herrialde garatuetan. Herrialde batzuk, besteak beste, AEB (haien interesari jarraiki) ongi kultural hauek beste ongiak bezala tratatzearen alde agertu ziren, merkatuaren legeenpean egon behar zutenak. Aurka zeudenak berriz ongi kulturalak nazio baten balio intangible gisa ikusten zituzten, eta beraz, berezko balio bat zutenek, tratatu ezberdin baten merezidunak. Hemen ordea eskubide kulturalen ulerkeraren inguruko arazo bat dago, zeinak ez diren sortuak izan nazioaren kultur eskubideak baizik eta norbanakoarenak defendatzeko. Izan ere norbanakoaren interesari jarri behar dira erdian.

Levi-Straussen abisua UNESCOren 2005ko Kultur aniztasunaren inguruko deklarazioaren harira. Izan ere, UNESCOk enkargaturiko arrazakeriaren inguruko liburuan zera esan zuen: auzia ez dela ezberdintasunaren edukia babestea, zeina beraz aldakor eta dinamikoa den, baizik eta ezberdintasuna ematea ahalbidetu zuten baldintzen babesa; hau da, ezberdintasuna bera eta ez haren edukia izatea babestua dena.

Aniztasunaren auzia oso korapilatsua da. Izan ere, 3 printzipio daude elkarri eragiten diotenak:

1. Alde batetik, bizitza kulturalen parte hartzeko eskubidea.
2. Bestetik, aniztasunaren auzia.
3. Azkenik, eskubideen interpretazio ahalik eta zabal eta inklusibitateena egiteko printzipioa,

Honek zera esan nahi du, eskubidea daukadala "nire" bizitza kulturalen parte hartzeko, baino baita ezberdin edo "besteenean" ere parte hartzeko. Ez da soilik besteak eskubide daukala bere kulturen parte hartzeko. Hau kontuan hartzea oso garrantzitsua da ez gueto kulturalen tranpa zaharrean bukatzeko, izan ere, aniztasun kulturalaren inguruko diskurtso askok "bakoitza bere ixkinan, bakoitzak bere kultura" paradigma erreproduzitzen dute oraindik. Honek kultura beraren nozioa bera urratzen du. Zalantzarik gabe, kulturaren ulerkera hau arazo bat izango da kudeatzaile kulturalentzako: nola sustatu adib. pelikula txinatarrak ere ikustea, hemengoak ere ikusten ez badira? Arazo material ebidenteak daude besteen kultura bertakoen eskura jartzeko. Besteen kultura sustatzeko gaitasunak ez badaude ere, minimo bat proposatzen du, ez behintzat besteen kulturen parte hartzeko oztoporik jartzea, adib. Chinak in bezela internetan erregulazioarekin.

3. Gizarte zibila: Hau da XX. mendeko berrikuntza kultural handia, kultura era zabal batean ulerturik: gizarte zibilaren emergentzia bizitza sozial eta politikoaren protagonista gisa. Honen data simboliko gisa jartzen du Greenpeace fundazioa, arrantza barku bat Canadako irla txiki batera abiatu zenean lur azpika forga nuklear bat eragozten saiatzeko. Horrela, pertsona, subjektu indibidualak, eta ez nazioak, estatuak edo partiduak aldatetarako subjektu gisa azaleratu ziren. Horrela, elkarte ez gumernamentalak protagonista bilakatu ziren beste 2 aktore sozialen, estatuaren eta inizatiba pribatuaren alboan. Kultur politikak kontuan hartu behar du protagonista berri hau, izan ere, gizarte zibila indartzen eta haien interesen alde jarduten ez duen kultur politika batek ez du izateko arrazoirik.

4. Iniziatiba publikoa: Botere publikok prozesu kulturalaren aktore zentralak dira eta beste aktoreak ez dauden lekuetan era komplementarioan jardun behar dute; horretarako gestio mekanismo egokiak behar dituzte.
5. Kulturaren merkatua: Kultura gaur egungo ekonomiako osagai zentrala da, zeinak nazioaren beste sektore produktiboen garapenerako oinarri berak behar dituen.

6. Hiria: Kultura hirian egiten da, hiriarentzako eta hiriarengatik, hiria kulturaren, kulturarentzako eta kulturarengatik egiten den bezala. Hiriak kulturaren gestiorako eskumenak eduki behar ditu eta berauek garatzeko baliabideak.
7. Kulturaren zentralitatea: Kultura politika publikoen erdigunean kokatu ezean ezibezkoa izango da bai garapen ekonomiko bai giza garapena. Estatuaren maila administratiboko kultur arduradunak harremanetan egon behar dute, ez soilik "kultur kontuak" adosteko baizik eta edozein auziren eragin kulturala neurtzeko. Horrela kulturak neurri urbanistiko berrien, diplomaziaren etab edozein motatako neurri berriak orientatzeko balio behar du.
8. Hezkuntza eta kultura: Kulturak politika publiko guztien erdigunean egon behar badu, hau egia da hezkuntzaren kasuan ere. Izan ere kulturak ematen dio zentzua hezkuntzari eta beraz haren maila guztietan egon behar du.
9. Kulturarako formazioa: Kulturaren eta kulturarentzako lan egiteko gaitasun batzuk behar dira, zeinak formazio baten objektu izan behar duen. Kulturarako formazioa da kulturaren erreprodukzioarako ezinbetseko baldintza, hau da, kulturaren jasagarritasunerako baldintza.
10. Berrikuntza (innovación): Ez dago garapenik berrikuntzarik gabe. Izan ere, berrikuntza gaurko bizitzaren alderdi guztietan dago, eta inobazioaren inguruko auziak pisu handia daukate gure gizartean: nola uztartu berrikuntza eta haren aurkakoa, nola sortu berrikuntzarako testuinguru egoki bat... Kulturaren eta kultur politikan ere hala da. Hala ere, kultur politikak badu bereizgarri hau: praktikamente bere sorreratik kontserbaziora, berrikuntzaren kontrakora, egon da bideratua, honen adibide dira patrimonioaren kontserbaziorako edo identitate kulturalaren mantentzerako politikak. Izan ere, eskuin nahiz ezkerreko diktadurak eta totalitarismoak habitus kulturalaren errekipakena, iraganren errepikakortasuna eta aldaketa eza bilatu dute. Baina garapen ekonomikoa eta giza garapena bilatzen badugu kulturaren berrikuntza apoiatu behar da, aniztasuna eta konektibitatea fomentatuz.

10 gauza hauek konektibitatea eta ekologia kulturala bermatu behar dituzte: